

Ikasgelako gatazken eraldaketa

📅 6-7 saio

📅 12-14

📅 XX ikasgelan

KONPROMISOAK COMPROMISOS

- Formakuntza saioretara joatea eta parte hartzea modu aktiboan.
- Koordinatzaile bat izendatzea prestakuntzako materialen kudeaketaz arduratzeko, hartutako erabakiak jasotzeko eta inplementazioaren jarraipena egiteko.
- Proposatzen diren ekintzak, gelan praktikan jartzea.
- Hausnarketa eta ebaluazioa egitea.
- Hartutako erabakiak dokumentu batean jasotzea eta idaztea.

EDUKIAK CONTENIDOS

- Gatazkaren kontzeptua, ikuspuntu positiboa eta negatiboa.
- Gatazken iturriak eta ebazteko estiloak.
- Teknikak.
- Hezkuntza emozionalaren gaitasunak
- Gatazkek eraldatzeko estrategiak:
 - Espazio eta denboraren antolaketa.
 - Komunikazioa: entzute aktiboa, komunikazio asertiboa ("ni mezua") eta familiekiko elkarrizketak.
 - Hezkuntza emozionala (5 gaitasunak)
 - Bitartekaritza, negoziazioa eta kooperazioa.
 - Sormena, pentsamendu malgua eta umorea

HELBURUAK OBJETIVOS

- Gatazken ezaugarriak ezagutzea baita bere ikuspuntu positiboa ere, arlo pertsonalean, ikasteko eta hazteko.
- Gatazken aurrean jokatzeko era desberdinak ezagutzea.
- Irakasleengandik hasia, bakoitzak bere gaitasun emozionala eta gatazken aurrean jokatzeko erari buruzko hausnarketa eginez (ahuleziak eta sendotasunak).
- Dinamika eta baliabide batzuk ezagutzea eta praktikara eramatea egoera horien aurrean erantzun hobetzailea emateko.
- Gatazken aurrean, emozioen kudeaketa hobetzea modu eraginkorragoan jokatzeko (irakasleak zein ikasleak).
- Eskolako giroa eta elkarbizitza hobetzea.
- Hezkuntza emozionala lantzeko eta gatazkei erantzuna emateko esku-hartzeak adostea, dinamikak eta jarduerak aukeratzea eta planifikatzea, gelan inplementatzea eta ebaluatzea era koordinatu batean eta elkarlanean oinarrituta.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE EVALUACIÓN

- Marko teorikoa eta gatazken eraldaketarekin lotutako dinamika eta tresna batzuk ezagutu dituzte.
- Irakasleak sentsibilizatuago daude gai honekin eta norberak bere praktika eta jokatzeko era hobetzen hasi da.
- Teknika batzuk inplementatzen hasi dira, umeak gatazken eraldaketan trebatzeko.
- Ikastetxean emozioen kudeaketa landu dute: emozioak identifikatu eta auto-erregulatu.
- Ikastetxean harremanetan hobekuntza nabaritu da.
- Dagozkion dokumentuak birpasatu eta egokitu dituzte: AJA, Elkarbizitza Plana, Hezkidetzeta Plana.
- Egindako dinamikak ebaluatu dira eta baliogarriak izan direnak idatzi dira dokumentu batean.